

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, Eulen Sociosanitarios, S.A. (Andoaingo etxez etxeko laguntza) enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20002682012009).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2021eko irailaren 22an enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariak sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

Bigarrena. 2021eko septiembren 24an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

Hirugarrena. Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikulua aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-02-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2021eko urriaren 1ean bete da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2021eko urriaren 1a.—Ramón Lertxundi Aranguena, lurralde ordezkaria. (6869)

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Eulen Sociosanitarios, S.A. (Ayuda a domicilio de Andoain) (código 20002682012009).

ANTECEDENTES

Primero. El día 22 de septiembre de 2021 se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de los trabajadores.

Segundo. El día 24 de septiembre de 2021 se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

Tercero. Se ha efectuado el requerimiento previsto en el artículo 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-02-2011), y se ha cumplimentado el 1 de octubre de 2021.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de octubre de 2021.—El delegado territorial, Ramón Lertxundi Aranguena. (6869)

Eulen Sociosanitarios SA enpresaren Hitzarmen Kolektiboa, Andoaingo udal kontratako etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileentzat.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Hitzarmengileak.

Alde batetik, Eulen Socio-Sanitarios-Asistencia Domiciliaria Andoain delako enpresaren legezko ordezkariak eta, bestetik, ELA, langileen izenean. Horiexek izenpetu dute lan-hitzarmen hau.

2. artikulua. Funtzioen eremua.

Hitzarmen kolektibo hau ezarriko zaie, oro har, adineko pertsonen edo autonomia mugatuta duten lagunei etxez etxeko laguntza ematen eta pertsona horiek zaintzen aritzen diren enpresa eta establezimendu guztiei.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua gizarteko zerbitzu komunitarioa da. Zerbitzu horrek, ondo prestatutako eta gainbegiraturako langileen bidez, prebentzioko eta hezkuntzako laguntza ematen die beren ongizate fisikoari, sozialari eta afektiboari eusteko edo ongizate hori berreskuratzeko zailtasunak dituzten familiei eta pertsonen; eta, era horretan, ahalegina egiten du pertsona horiek, ahal den heinean eta komeni den bitartean, beren etxeetan eta/edo ingurunean bizitzen jarraitu ahal izan dezaten.

Era berean, hitzarmen honek eragina izango du funtzioen eremu horretan zerbitzu egiten duten negozio-ildoetan, ataletan edo beste ekoizpen-unitate batzuetan, nahiz eta horiek atxikita dauden enpresaren jardura nagusia bestelakoa izan, edo enpresa jardura batean baino gehiagotan aritu eta jardura horiek hainbat ekoizpen-sektoretakoak izan.

3. artikulua. Langile-eremua.

Andoaingo etxez etxeko laguntza-zerbitzuari atxikitako Eulen Sociosanitarios SA enpresako langileei aplikatuko zaie hitzarmen kolektibo hau.

4. artikulua. Indarraldia eta hitzarmena salatzea.

Hitzarmen honen indarraldia 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da. Bi alderdiek adostu dute hitzarmenaren amaiera 2024ko urriaren 31n iragarritzat joko dela, eta konpromisoa hartzen dute hurrengo hitzarmena negoziatzeko batzordea hilabeteko epean eratzeko. Hala ere, hitzarmen hau ordezkaturiko duen beste bat indarrean jarri arte luzatuz joko da isilbidez, aldi baterako eta behin-behinekoz.

5. artikulua. «Ad personam» bermea. Baldintzarik onuragarriena.

Hitzarmen honen eragin pean dauden langileak jasotzen eta baliatzen ari ziren baldintza ekonomikoak eta bestelakoak hitzarmen honetan itundutakoak baino hobekak eta onuragarriagoak badira, errespetatu egingo dira; berdin dio langilea baldintza horiek zergatik jasotzen ari zen: Enpresak eta langileek ituna egina zutelako, edo langileari hitzarmen hau baino onuragarriagoa den hitzarmen kolektibo bat ezartzen zitzaielako.

6. artikulua. Hitzarmeneko Batzorde Misto Parekidea.

Hitzarmena sinatzen duten erakundeek Batzorde Mistoa eratu dute. Batzorde hori izango da hitzarmen kolektibo hau interpretatzeaz, arbitrajea eta bitartekotza egiteaz, eta hitzarmena betetzen ote den zaintzeaz arduratuko den organoa. Batzordearen ebazpenak lotesleak izango dira; eta Batzordeak egiten dituen bilera guztien akta jaso beharko da, eta hartzen dituen erabakiak artxibatu eta erregistroan gorde beharko dira.

Batzorde misto horrek lau kide izango ditu, bi enpresaren ordezkariak izango dira, eta beste bi ELArenak.

Convenio Colectivo de Eulen Sociosanitarios, S.A. para el personal del servicio de asistencia domiciliaria de la contrata municipal de Andoain.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Partes concertantes.

El presente convenio colectivo se concierta entre la representación legal de la empresa Eulen Sociosanitarios-Asistencia Domiciliaria Andoain, el comité de Eulen Sociosanitarios, S.A. y la delegada de la sección sindical de ELA en representación de los/las trabajadores/as.

Artículo 2. Ámbito funcional.

El presente Convenio Colectivo es de aplicación en la empresa que dedica su actividad, en general, al cuidado y atención en su domicilio de personas mayores o que tengan limitada su autonomía.

El Servicio de Ayuda a Domicilio es un servicio comunitario de carácter social, que, mediante trabajadoras, preparadas y supervisadas, ayuda a nivel preventivo, educativo y asistencial a familias o personas con dificultades para mantener o restablecer su bienestar físico, social y afectivo, e intentar que puedan continuar viviendo en su hogar y/o entorno mientras sea posible y conveniente.

Igualmente, quedan afectadas por este Convenio las divisiones, líneas de negocio, secciones u otras unidades productivas dedicadas a la prestación del servicio del ámbito funcional, aun cuando la actividad principal de la empresa en que se hallen integradas sea distinta o tenga más de una actividad perteneciente a diversos sectores productivos.

Artículo 3. Ámbito personal.

El presente Convenio colectivo que afecta a los/as trabajadores/as de la Empresa Eulen Sociosanitarios, S.A., adscritas al Servicio de Ayuda Domiciliaria de Andoain.

Artículo 4. Ámbito temporal. Vigencia y denuncia.

El presente convenio entrará en vigor el 1 de enero del 2021 y finalizará el 31 de diciembre del 2024. Ambas partes convienen que el convenio se considerará denunciado el 31 de octubre del 2024, comprometiéndose las partes a la constitución de la comisión negociadora del siguiente convenio en el plazo máximo de 1 mes. No obstante, se entenderá prorrogado expresa, temporal y accidentalmente hasta la entrada en vigor de uno nuevo que lo sustituya.

Artículo 5. Garantía «ad personam». Condición más beneficiosa.

Se respetarán las condiciones superiores y más beneficiosas, tanto económicas como de otro tipo que vengán percibiendo y disfrutando el personal afectado, sean percibidas éstas por pacto entre la empresa y el personal o aplicación a éste de Convenio colectivo superior al presente.

Artículo 6. Comisión Mixta Paritaria de Convenio.

Se crea entre las organizaciones firmantes una Comisión Mixta como órgano de interpretación, arbitraje conciliación y vigilancia del cumplimiento del presente Convenio Colectivo, siendo sus resoluciones vinculantes, debiéndose levantar acta de las reuniones, archivando y registrándose los acuerdos adoptados.

Esta Comisión Mixta estará conformada por 2 personas por parte empleadora y otras dos en representación de ELA.

Erakunde bakoitzak aholkulari baten laguntza jaso ahal izango du, egoki iruditzen bazaio. Aholkulari horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Batzorde-kideetako bat batzordeko burua izango da eta, hasiera batean behintzat, hark egingo du batzorderako deia, bestela, alderdietako edozeinek egingo du. Aktetarako idazkari izendatzen dutenaren ardura izango da erabakiak jakinaraztea.

Hona hemen batzorde mistoko kideak: Negoziazio-mahaia-
ren osaera-aktaren arabera.

- a) Enpresaren izenean: Antonio Rufo Gómez.
- b) ELAren izenean, Jone Morales Horrillo y Karmele Mendi-
nueta Goñi.

7. artikulua. Langileen sailkapena eta lanbide-kategorien definizioa.

Hitzarmen kolektibo honen ezarpen-eremuan dauden langileak, daukaten titulazioa kontuan izanda eta egin behar dituzten zereginak aintzat hartuta, ondorengo lanbide-taldeen eta -
azpitaldeen arabera sailkatuko dira:

1. Administratzailea, kudeatzailea eta antzekoak.
Zuzendaria.
Langileen burua.
Administrazioko burua.
2. Goi-mailako titulua duten langileak, agintariak.
Goi-mailako tituludunak.
3. Erdi-mailako titulua duten langileak.

OLT/EUD (Osasun Laguntzaile Teknikoa/ Erizaintzako Uni-
bertsitate Diplomatua).

- Gizarte-laguntzailea.
Hezitzaile soziala.
Zerbitzuen koordinatzailea.
Lan-terapeuta.
Erdi-mailako tituludunak.
Administrazioko ofiziala.
4. Langile teknikoak eta erdi-mailako agintariak.
Taldeko arduraduna.
Etxeko laguntzailea.
Administrazio-laguntzailea.
 5. Menpeko langileak.

- Gidaria.
Menpekoak.

Lanbide-kategoria horiek aditzera emateko baizik ez dira jarri. Zentroak bete beharreko administrazioko baldintzak alde batera utzita, kategoria horiek ez dira guztiak nahitaez bete behar, zentroaren jardueraren premiak ikusita horretarako beharrik ez badago, eta indarrean dauden lege-xedapenek horrela eskatzen ez badute.

Alabaina, langile bat kategoria jakin batean zehaztutako zereginetan aritzen den unetik, orduan, langile horri kategoria horri dagokion ordainsaria eman beharko zaio, hitzarmen honen arabera edo indarrean dauden legeen arabera langileari dagozkion gainerako eskubideei kalterik egin gabe.

8. artikulua. Lanbide-kategorien funtzioak.

Sektoreko langileek egin behar dituzten zereginak hitzarmen kolektibo honen II. eranskinean daude jasota.

Cada una de las Organizaciones podrá contar con la asistencia de una persona asesora, si lo estima conveniente, teniendo el mismo voz pero no voto.

Las convocatorias de esta Comisión Mixta las efectuará en principio la persona designada como presidente o presidenta de la misma, o en su defecto por cualquiera de las partes, siendo la persona designada como Secretario/a de Actas la persona encargada de comunicar las decisiones.

Constituyen la Comisión Mixta: Según acta de constitución de la mesa negociadora.

- a) En representación de la Empresa: Antonio Rufo Gómez.
- b) Por ELA: Jone Morales Horrillo y Karmele Mendi-
nueta Goñi.

Artículo 7. Clasificación del personal, definición de categorías profesionales.

El personal comprendido en el ámbito de aplicación del presente Convenio Colectivo de conformidad con su titulación y en virtud de las tareas a realizar se clasificará en base a los siguientes grupos y subgrupos profesionales:

1. Administradora, Gerente, o similares.
Directora.
Jefa de Personal.
Jefa de administración.
2. Personal Titulado Superior, mandos.
Tituladas superiores.
3. Personal Titulado Medio.
ATS / DUE.

- Asistente Social.
Educatora Social.
Coordinadora de servicios.
Terapeuta ocupacional.
Titulados medios.
Oficial administrativa.
4. Personal Técnico y Mandos Intermedios.
Responsable de equipo.
Auxiliar Domiciliaria.
Auxiliar Administrativa.
 5. Personal Subalterno.
Conductora.
Subalternas.

Las categorías especificadas anteriormente tienen carácter enunciativo, y, a reserva de los requisitos administrativos que haya de cumplimentar el Centro, no suponen la obligación de tener provistas todas ellas si el volumen, las disposiciones legales vigentes no lo exigen, o las necesidades debidas a la actividad del centro no lo requieren.

Sin embargo, desde el momento mismo en que cualquier persona trabajadora realice las funciones especificadas en la definición de una categoría determinada habrá de ser remunerado/a con la retribución propia de la misma, sin perjuicio de los demás derechos que pudieran corresponderle de conformidad con el presente Convenio o la Legislación Vigente.

Artículo 8. Funciones de las categorías profesionales.

La definición de las tareas a desarrollar por el personal será la recogida en el anexo II que forma parte del presente Convenio Colectivo.

Desadostasunik egonez gero, lehenik, hitzarmen kolektiboren Batzorde Parekideak izango du desadostasun horien gaineko irizpena emateko ardura; eta, horrela ere akordioa egiterik ez badago, alderdiek egoki diren tokietara jo ahal izango dute.

II. KAPITULUA

ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

9. artikulua. Kontratu mugagabea.

Hitzarmen honen eragin pean dauden enpresek zuzenean kontratatuko dituzte zerbitzua era egokian betetzeko behar diren lanpostuetako langileak, eta, horretarako, kontratu mugagabeak egingo dizkiete langileei. Enpresako langileen % 75ek, gutxienez, mota honetako kontratuak izango ditu. Ehuneko hori arau orokor gisa zabaltzeko konpromisoa dago.

Kontratu mugagabeak ehuneko horietara iristea ezinezkoa bada, ehuneko horietara iritsita enpresak aurrera jarraitzea kolokan egongo litzatekeelako, orduan, kontratu-mota horiek gutxi-tu ahal izango dira. Hori gutzia egin beharko da langileen legezko ordezkariekin bat etorrira eta auzi hori behar bezala justifikatu ondoren.

10. artikulua. Prestakuntzako kontratuak.

Prestakuntzako kontratuen helburua da langileak behar duen prestakuntza teorikoa eta praktikoa jaso ahal izatea kalifikazio-maila jakin bateko lanbidea edo lanpostua egoki betetzeko.

Enpresek, hamar eguneko epean, mota horretako kontratu bat egiten duten egunetik hasita, langileen legezko ordezkari emango diete horren berri, eta ondo zehaztuko dute bete den lanpostua, iraupena eta lanbide-kategoria zein den.

Prestakuntzako kontratuek honako ezaugarri hauek edukiko dituzte:

A) Lanaldi osoan baizik ezingo dira egin; gainera, langileek 16 urte baino gehiago eta 20 urte baino gutxiago eduki beharko dituzte, eta ez dute edukiko dagokien lanbide-kategoriarako eskatzen den titulazioa. Langile elbarriek ez dute adin-mugarik izango.

Prestakuntzako kontratua duten langileak ez dira lantokiko plantillaren % 5 baino gehiago izango.

B) Kontratuak ez du hamabi hilabete baino gutxiago iraungo, ez eta bi urte baino gehiago ere; bestalde, probaldia ezarri ahal da, baina aldi hori ez da 15 egunetik gorakoa izango.

C) Langileak prestakuntza teorikoa jasotzeko izango duen denbora ez da hitzarmen honetan ezarritako lanaldiaren % 15etik beherakoa izango. Langileen delegatuek, enpresako batzordeek edo delegatu sindikalek, eta enpresetako zuzendaritzek formulak hitzartu ahal izango dituzte, prestakuntza egunero, astero edo hilero emateko, edota langileen ordezkariak eta enpresako ordezkariak ituntzen duten beste edozein modutan antolatzeko.

D) Prestakuntzako kontratua duen langileari ezingo zaio lanpostua eman prima duten edo honenbestean ordaindutako soldata duten zereginak egiteko, ez eta peoi-lanetan edota serie-lanetan aritzeko ere. Orobat, langile hori ez da jardungo gauez, ezta jaiegunetan ere.

E) Kontratatutako langileak irakaskuntza praktikokoaren bidez ikasten duena egiaztatze aldera, enpresak langile bat izendatuko du enpresako langile guztien artean, eta hori arduratuko da egiaztapen horiek egiteaz.

F) Kontratu-mota hau duen langilearen soldata ez da % 80tik beherakoa izango kontratuaren lehenengo urtean, ez eta % 90etik beherakoa ere kontratuaren bigarren urtean. Horretarako, dagokion lanbide-kategoria hartuko da aintzat; eta soldata ez da lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa izango, ez kasu batean ez bestean.

En el caso de discrepancias, en primera instancia será competencia de la Comisión Paritaria del Convenio Colectivo dictaminar al respecto, y en el caso de no alcanzar acuerdo, las partes podrán recurrir a las instancias oportunas.

CAPÍTULO II

EMPLEO Y CONTRATACIÓN

Artículo 9. Contrato indefinido.

La empresa afectada por el presente convenio contratará directamente bajo la modalidad de contratos indefinidos, aquellos puestos de trabajo necesarios para el buen funcionamiento del servicio. Como mínimo el 75 % de la plantilla adscrita al servicio estarán contratadas bajo esta modalidad, existiendo el compromiso de ampliación del porcentaje como regla general.

Solo en aquellos casos que al contratar con estos porcentajes de contratación indefinida, ponga en peligro la continuidad de la empresa, podrán reducirse. Todo ello de acuerdo con la representación legal de las trabajadoras, y con la suficiente justificación sobre dicha cuestión.

Artículo 10. Contratos de formación.

Son aquellos cuyo objeto consiste en la adquisición de la formación teórica y práctica necesaria para el desempeño adecuado de un oficio o de un puesto de trabajo que requiera un determinado nivel de calificación.

La empresa en el plazo de 10 días, a partir de la formalización de cualquier contrato bajo esta modalidad dará cuenta a la representación legal de las/los trabajadoras/es, detallando el puesto de trabajo ocupado, la duración y la categoría profesional.

Estos contratos deberán cumplir las siguientes características:

A) Únicamente podrán realizarse a jornada completa, con trabajadoras/es mayores de 16 años y menores de 20 y que carezcan de la titulación requerida para la categoría profesional correspondiente. Quedan exceptuados del límite de edad, las trabajadoras minusválidas.

El personal contratado por formación no podrá superar el 5 % de la plantilla del Centro de trabajo.

B) La duración del contrato no podrá ser inferior a doce meses ni superior a los dos años, no pudiendo establecerse un período de prueba superior a los 15 días.

C) El tiempo dedicado a la formación teórica del/la trabajador/a no podrá ser inferior al 15 % de la jornada establecida en el presente Convenio, pudiendo acordarse fórmulas entre las Delegadas de Personal, ó Delegada Sindical y la Direcciones de la empresa, para que dicha formación pueda realizarse de forma diaria, semanal, mensual ó de cualquier otra forma que pueda pactarse entre la representación del personal y la representación de la empresa.

D) El/La trabajador/a contratada bajo esta modalidad, no podrá ser destinada a labores retribuidas a destajo o prima, así como tampoco a labores de peonaje o de producción en serie, ni en jornadas nocturnas ni festivas.

E) Al solo objeto de comprobar los conocimientos que en el período de enseñanza práctica vaya adquiriendo el/la trabajador/a contratado/a, la empresa asignará, de entre el personal de la misma, a una persona trabajadora, a fin de que realice tales comprobaciones.

F) El salario que perciba el/la trabajador/a contratada bajo esta modalidad, no podrá ser inferior al 80 % durante el primer año de su contrato, ni del 90 % en el segundo año, siempre tomando como referencia la categoría correspondiente y sin que en ninguno de los casos sea inferior al salario mínimo interprofesional.

G) Kontratua bukatzen denean, langilea plantillako langile finko bilakatuko da, beteko duen lanari dagokion lanbide-kategoriarekin. Antzintasuna kalkulatzeko, denboraldi hori benetako zerbitzuen denboratzat hartuko da. Bestalde, enpresaburuak ziurtagiri bat emango dio langileari, eta horrek prestakuntza teorikoaren iraupena eta prestakuntza praktikoaren maila jasoko ditu.

H) Prestakuntzako kontratuarekin lanean aritutako langilea ezingo da kontratu-mota berarekin berriz kontratu, ez enpresa berean ez beste batean, kontratua 12 hilabetetik gorakoa bada.

11. artikulua. Praktikaldiko lan-kontratuak.

Langileei beren ikasketa-mailari dagokion prestakuntza praktikoko egokia emate aldera, hitzarmen kolektibo hau duten enpresen praktikaldiko lan-kontratuaren bidez kontratu ahal izango dituzte langileak.

Enpresek, hamar eguneko epean, mota horretako kontratu bat egiten duten egunetik hasita, langileen legezko ordezkariari emango diete horren berri, eta ondo zehaztuko dute bete den lanpostua, iraupena eta lanbide-kategoria zein den.

Kontratu horiek honako ezaugarri hauek edukiko dituzte:

A) Kontratua hitzartu ahal izango da unibertsitateko titulu bat edo lanbide-heziketako titulu bat –maila ertainekoa edo goimailakoa– duten langileekin, bai eta era ofizialean horien balioakidetzat jo diren tituluak dituzten langileekin, tituluek lanean ari-zeko prestatzen badute eta titulua lortu den egunetik kontratua formalizatu den arte lau urte baino gehiago igaro ez badira.

Praktikak egiteko kontratatzen diren langileak ez dira lantokiko plantillaren % 5 baino gehiago izango.

B) Probaldia ez da hilabetetik gorakoa izango erdi-mailako titulazioa duten langileentzat, ez eta bi hiletik gorakoa ere goimailako titulazioa dutenentzat.

C) Praktikaldiko lan-kontratuak sei hilabeteko iraupena izango du gehienez eta gutxienez. Denboraldi hori bukatzen denean, langilea plantillako langile finko bilakatuko da; eta langile horren lanbide-kategoria ez da sekula izango praktikaldiko lan-kontratuarekin egin duen zereginari dagokion kategoria baino txikiagoa.

D) Kontratututako langileak irakaskuntza praktikoaren bidez ikasten duena egiaztatze aldera, enpresak langile bat izendatuko du enpresako langile guztien artetik, praktikaldiko kontratua duen langilearen maila berekoa edo goragokoa izango dena, eta hori arduratuko da egiaztapen horiek egiteaz.

E) Praktikaldiko lan-kontratua duen langilearen soldata ez da inoiz izango bere lanbide-kategoriari dagokion soldata baino txikiagoa.

F) Praktikaldiko lan-kontratuarekin lanean aritutako langilea ezingo da kontratu-mota berarekin berriz kontratu, ez enpresa berean ez beste batean, kontratua sei hilabetetik gorakoa bada.

12. artikulua. Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratua.

Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratua da enpresaren jardueraren barruan berezko autonomiaz eta izaeraz obra bat edo zerbitzu bat egiteko xedea duena, edota dakarten lan-kopuru gehigarriatik behar adina bereizitako zereginak edo lanak betetzeko ituntzen dena, lan horien betearazpena, denboran mugatua bada ere, hasiera batean iraupen ezezagunekoa bada.

Enpresek, kontratua formalizatu eta gehienez hamar eguneko epean, kontratu horien arrazoia jakinaraziko diete langileen ordezkariari, eta, orobat, ondo zehaztuko dute kontratu hori izango duten langileen kopurua, esleitu diren lanbide-taldeak eta aurreikusten den iraupena.

G) A la finalización del contrato, el/la trabajador/a pasará a ser fijo de plantilla con la categoría correspondiente a la labor que vaya a realizar, este tiempo será computado como de servicios reales a los efectos de cómputo de antigüedad, y la empresa, hará entrega, de un certificado en el que conste la duración de la formación teórica y el nivel de formación de prácticas adquirido.

H) El/La trabajador/a que haya realizado el trabajo bajo la modalidad de contrato de formación, no podrá volver a ser contratada en la misma bajo la misma modalidad de contrato, si supera el plazo de 12 meses.

Artículo 11. Contratos en prácticas.

Con el objeto de facilitar al personal trabajador, la obtención de la formación práctica necesaria acorde a su nivel de estudios, la empresa afectada por el presente convenio colectivo, podrán contratar personas trabajadoras bajo esta modalidad contractual.

La empresa en el plazo de 10 días, a partir de la formalización de cualquier contrato bajo esta modalidad dará cuenta a la representación de las/los trabajadoras/es, detallando el puesto de trabajo ocupado, la duración y la categoría profesional.

Estos contratos deberán cumplir las características que a continuación se especifican:

A) Podrá concertarse con aquellas personas trabajadoras que estén en posesión de un título universitario o de formación profesional de grado medio o superior, o títulos oficialmente reconocidos como equivalentes, que habiliten para el ejercicio profesional y siempre y cuando no hayan transcurrido más de cuatro años desde la obtención del título hasta la formalización del contrato.

El personal contratado para prácticas no podrá superar el 5 % de la plantilla del Centro de trabajo.

B) El período de prueba no podrá exceder de un mes para los titulados de carácter medio, ni de dos meses para los de carácter superior.

C) El tiempo mínimo y máximo del contrato de prácticas será de seis meses. A la finalización de dicho periodo, el/la trabajador/a pasará a ser fijo de plantilla, y nunca con una categoría inferior a aquella en la cual hubiere efectuado su labor con esta modalidad contractual.

D) Al solo objeto de comprobar los conocimientos que en el periodo de enseñanza práctica vaya adquiriendo la trabajadora contratada, la empresa, asignará de entre el personal de la misma, a una persona trabajadora del mismo o superior nivel que el contratada en prácticas, a fin de que realice tales comprobaciones.

E) El salario que perciba el/la trabajador/a contratada bajo esta modalidad, nunca será inferior al salario correspondiente a su categoría profesional.

F) El/La trabajador/a que haya realizado el trabajo bajo la modalidad de contrato de prácticas, no podrá volver a ser contratada en la misma modalidad de contrato, si supera el plazo de 6 meses.

Artículo 12. Contratos de obra o servicio.

Se entenderán por Contratos de obra o servicio determinados los que tengan por objeto la realización de una obra o servicio, con autonomía y sustantividad propias dentro de la actividad de la empresa, o concertados para cubrir aquellas tareas o trabajos suficientemente diferenciados por el volumen adicional de trabajo que representan, cuya ejecución, aunque limitada en el tiempo, es en principio, de duración incierta.

La empresa, en un plazo máximo de 10 días a partir de las formalizaciones de cada contrato, dará cuenta a la representación de las/los trabajadoras/es la causa de los mismos, especificando el número de personas trabajadoras afectadas, grupos profesionales a asignar y duración prevista.

Kontratu-mota honetakoak izan daitezkeen lanak identifikazeko desadostasunik bada, alderdiek Precora (Gatazkak Ebazteko Prozedurara) jo al izango dute desadostasun horiek konpontze aldera (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 66. zk.a, 2000-04-04). Uztailaren 10eko 12/01 Legeak 3. artikulua-ren 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, kontratua bukatzean, langileak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, uanean uanean indarrean dagoen legearen arabera legokiokkeen zenbatekoaren zati proportzionalaren parekoa.

13. artikulua. Aldi baterako lan-kontratuak.

Merkatuko egoerari aurre egiteko –esate baterako, metatutako zereginari aurre egiteko– ituntzen diren aldi baterako lan-kontratuak, Langileen Estatutuaren Testu Bateginak 15. 1. b) artikuluan jasota daudenek, honako ezaugarri hauek edukiko dituzte:

A) Kontratu horien gehieneko iraupena sei hilekoa izango da hamabi hileko denboraldian, eta iraupena kontratua egiteko arrazoia edo egoera gertatzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

B) Uztailaren 10eko 12/01 Legeak 3. artikulua-ren 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, kontratua bukatzean, langileak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, eta kalte-ordain hori honen parekoa izango da: Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko soldatako hamabi egun ordainduz aterako litzatekeen kopuruaren zati proportzionalaren parekoa.

14. artikulua. Errelebo-kontratuak.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek onartzen dute aurreko hitzarmen kolektiboa sinatu zenetik «erretiro partzialaren» arloan egindako araudi-aldaketek ez dutela inola ere sustatzen figura hori indartzerik eta errelebo-kontratuak formalizatzerik.

Aurrekoa gorabehera, figura hori sustatuko da, baldin eta, bertan sartzeko indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzak beteta, gutxienez honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Enpresak langilearen eskaera onartzen badu, sortzen zaion ondorengo egoera, bi kontratuetatik (errelebigista eta ordezkatzua) eratorritako kostuak eta ordainsariak (kotizazioak barne) batuta, eskaera egin duen langilearen kostua eta ordainsaria baino handiagoa ez denean.

2. Erretiro partziala hartu nahi duen langilea, lanaldi partzialeko kontratuan, erretiratzeko adin arruntera heldutakoan erabat erretiratzeari lotzen bazaio eta, ondorioz, kontratua egun horretan bertan azkentzen bazaio.

3. Lanaldi partzialeko kontratu horretan bere lan-denboraren banaketa berria adosten bada.

4. Enpresaren egoerak, Zuzendaritzaren iritziz, aukera ematen badu aldi berean beste langile (errelebigista) egoki bat kontratatzeko, erretiro partziala hartzen duen langileak hutsik utzitako lanaldia legez ezarritako baldintzetan ordeztzeko.

5. Erretiro partziala hartu nahi duen langileak enpresari behar besteko aurrerapenarekin abisatzen badio, eskaera hori onartzen duen ala ez balioetsi ahal izan dezan, aurretik azaldu-tako inguruabarretan oinarrituta.

Horrek guztiak ez du galaraziko langile eskatzailearen eta enpresaren artean beste aukera batzuk adostea.

15. artikulua. Bitarteko edo ordezkotzako lan-kontratuak.

Bitarteko edo ordezkotzako lan-kontratuak ez da aintzat hartuko plantillako ehunekoak zenbatzerakoan. Bitarteko edo ordezkotzako kontratuak honako egoera hauek betetzeko baizik ez dira egingo: Bajak, oporrak, eszedentziak, baimenak, edo behin-behineko beste gertaera batzuk betetzeko, horrelakoetan, lanpostu berririk behar ez bada eta lehendik dagoen lanposturen bat aldi baterako ordezkatzeari nahikoa bada.

En caso de desacuerdo sobre la identificación de los trabajos susceptibles de esta modalidad, cualquiera de las partes podrá acudir, para solventar las discrepancias, al Preco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 66 de 04.04.00). De conformidad con lo establecido en el artículo 3 apartado uno, de la Ley 12/01 de 10 de julio, a la finalización del contrato, la trabajadora tendrá derecho a recibir una indemnización equivalente a la parte proporcional de la cantidad que resultaría en función de la ley vigente en cada momento.

Artículo 13. Contratos eventuales.

Los contratos eventuales que se concierten para atender las circunstancias del mercado como la acumulación de tareas, contemplados en el art. 15. 1. b) del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de las/los trabajadoras/es deberán cumplir las características que a continuación se especifican:

A) La duración máxima de estos contratos será de un total de seis meses en un período de doce meses, computándose el mismo a partir de la fecha en que se produzca la causa o circunstancia que justifique su utilización.

B) De conformidad con lo establecido en el artículo 3 apartado uno, de la Ley 12/01 de 10 de julio, a la finalización del contrato, la trabajadora tendrá derecho a recibir una indemnización equivalente a la parte proporcional de la cantidad que resultaría de abonar doce días de salario por cada año de servicio.

Artículo 14. Contrato de relevo.

Las partes firmantes del presente Convenio reconocen que los cambios normativos en materia de «Jubilación Parcial» introducidos desde la firma del anterior Convenio Colectivo en modo alguno incentivan la promoción de esta figura y la formalización de contratos de relevo.

No obstante lo anterior se promocionará esta figura cuando, cumpliendo los requisitos previstos en la legislación vigente para el acceso a la misma, se den al menos las siguientes circunstancias:

1. Cuando en caso de acceder la empresa a la solicitud del trabajador la situación posterior que se le genera, sumando los costes y las retribuciones derivadas de ambos contratos (relevisa y relevado) incluidas las cotizaciones, no sea superior al coste y a la retribución del trabajador solicitante antes de dicha solicitud.

2. Cuando el trabajador/a que solicita jubilarse parcialmente se vincule en el contrato a tiempo parcial a jubilarse plenamente a la edad ordinaria de jubilación y en su consecuencia a la extinción del contrato a dicha fecha.

3. Cuando se acuerde en dicho contrato a tiempo parcial la nueva distribución de su tiempo de trabajo.

4. Cuando la situación de la Empresa, a criterio de la Dirección, permita la contratación simultánea de otro trabajador/a (relevisa) idóneo con objeto de sustituir la jornada de trabajo dejada vacante por el trabajador/a que se jubila parcialmente y en las condiciones legalmente establecidas.

5. Cuando el trabajador que quisiera jubilarse parcialmente avise a la empresa con la antelación suficiente para que pueda valorar si acepta o no dicha solicitud en base a las circunstancias anteriormente expuestas.

Todo lo anterior sin perjuicio de otras posibilidades que puedan acordarse entre el trabajador solicitante y la empresa.

Artículo 15. Contrato de interinidad o sustitución.

El contrato de interinidad o sustitución no se contabilizará para el cómputo de porcentajes de plantilla. Solo se realizarán contratos de interinidad o sustitución para cubrir: Bajas, vacaciones, excedencias, permisos, u otras eventualidades, cuando estás no supongan nuevos puestos de trabajo, sino la sustitución temporal de alguno ya existente.

16. artikulua. *Aukeren berdintasuna sustatzea kontratuak egiterakoan.*

Enpresek ziurtatu beharko dute plantillen % 2 gutxienez ezgaituek beteko dituztela. Orobat, kontratu berriak egiterakoan, lan-merkatuan bereizkeria gutxiago egon dadin, egutegiko urte bakoitzean egiten dituzten kontratu mugagabe guztietatik % 2, gutxienez, langile ezgaituei egin beharko dizkiete.

17. artikulua. *Eskueran jartzeko kontratuak. Zerbitzu-enpresak. Aldi baterako laneko enpresak.*

Eulen Sociosanitarios enpresak ezin izango du beste zerbitzu-enpresa bat berriro azpikontratatu, ezta aldi baterako laneko enpresa baten zerbitzuak ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuari atxikitako lanak egiteko.

18. artikulua. *Lanpostu hutsak, lanpostu berriak, sustapena eta igoyerak.*

Behin betiko eta aldi baterako lanpostu hutsak bereizten dira: behin betiko lanpostu hutsak enpresarekiko lan-harremana amaitzearen ondorioz sortzen direnak dira; aldi baterako lanpostu hutsak, berriz, langileen baimen ordaindua, gaixotasun-baja, berriz gaixotzearen baja edo lan-istripuaren ziozko baja ematearen ondorioz sortzen dira.

Lanpostu berriak eta behin betiko lanpostu hutsak antzinatean handieneko langileei eskainiko zaizkie, baldin eta aldatuta unera arte egiten duten orduetegiarekin bateragarriak badira, salbu eta erabiltzaileak arreta euskaraz eman nahi duela adierazten badu. Kasu horretan, langilearen euskara-maila ere baloratuko da.

Legezko zaintzagatiko edo mendeko pertsonengatiko eszedentziek, amatasun-bajek eta haurdunaldi-arrikuagatiko bajek eragindako lanpostu hutsak ere antzinatean araberak eskainiko dira.

Gainerako lanpostu huts guztiak aldi baterakoak izango dira, eta ordu-prestasuna duen pertsonari eskainiko zaizkio.

Langileek ezin izango dute ordu-poltsa bete; beraz, hilabete berean deskontatuko dira erabiltzaileen berezko arrazoiengatik lan egindako orduak.

Langileek lan-kontratutik kanpo zerbitzuren bat egiten badute gorabeherak betetzeko, ordu osagarri gisa ordainduko zaizkie lanaldi partziala dutenei, eta opor-egun gisa lanaldi osoa dutenei. Azken kasu horretan, orduak metatu ahal izango dira opor-egun osoak eskatzeko. Eskaera ukatu ahal izango da plantillak % 20 metatzen badu aldi baterako ezintasunaren, aurretik emandako lizentzien edo oporren artean.

19. artikulua. *Kategoria goragoko eta behegoko lanak.*

Langileei ezingo zaie lanposturik eman behegoko kategoria bateko zereginak egiteko. Langileei lanpostua ematen bazaie goragoko kategoria bateko zereginak egiteko, eta urtebete barruan lau hilabetetik gora aritzen badira horretan, edo bi urteren barruan sei hilabetetik gora aritzen badira, orduan, langileak igotera eskatu ahal izango du, dagokion titulazioa badu eta lanpostuan horrela behar bada. Horrela eginez gero, esleitutako kategoriaren eta benetan egindako zereginaren artean ordainsaria aldetik dagoen aldea emango zaio.

Lan-prestazioa hitzartzerakoan, eta langilearen eta enpresaburuaren artean balioaniztasun funtzionala edo talde bati baino gehiagori dagozkien funtzioak egitea adosten denean, soldata lehentasunekoak diren funtzioen arabera zehaztuko da –goimailako taldearenak–, eta ez, ordea, denbora luzeagoan betetzen diren funtzioen arabera.

Artículo 16. *Fomento de igualdad de oportunidades en la contratación.*

La empresa, garantizará que como mínimo el 2 % de su plantilla será cubierta con personal diversidad funcional, así como, cuando realice nuevas contrataciones, y al objeto de disminuir la discriminación existente en el mercado laboral, vendrá obligada, a que del conjunto de contratos indefinidos que se realicen en cada año natural, al menos el 2 % de los mismos sean con personal con discapacidad funcional.

Artículo 17. *Contratos de puesta a disposición. Empresas de servicios. Empresas de trabajo temporal.*

Eulen Sociosanitarios no podrá volver a subcontratar a otra empresa de servicios, ni los servicios de una empresa de Trabajo Temporal para la realización de tareas adscritas al servicio de ayuda domiciliaria.

Artículo 18. *Vacantes, nuevos puestos, promoción y ascensos.*

Se distingue entre vacantes definitivas y temporales: las vacantes definitivas son aquellas que surgen como consecuencia de la extinción de relación laboral con la empresa, mientras que las vacantes temporales resultan de la concesión de un permiso retribuido, baja de enfermedad, recaída o accidente de trabajo del personal trabajador.

Los puestos de nueva creación y las vacantes definitivas se ofrecerán por orden a las trabajadoras de mayor antigüedad y que sea compatible con el horario que realiza hasta el momento del cambio, excepto en los casos de que la persona usuaria manifeste su voluntad de ser atendido en euskera. En este caso, se valorará además el nivel de euskera de la trabajadora.

Se ofrecerán también por orden y en función de la antigüedad de vacantes derivadas de excedencias por guarda legal o personas dependientes, bajas de maternidad y bajas por riesgo de embarazo.

Todo el resto de vacantes serán consideradas temporales y se ofrecerán a la persona que tenga disponibilidad horaria.

Queda rechazada la bolsa de horas por parte de las trabajadoras, por lo que se descontarán en el mismo mes, las horas trabajadas por causas inherentes a las personas usuarias.

En caso de que las personas trabajadoras realicen algún servicio fuera del contrato laboral para cubrir incidencias, se abonarán como horas complementarias a aquellas personas que tengan jornada parcial, y como días de vacación para aquellas que tengan jornada completa. En este último caso se podrán acumular horas, para solicitar días enteros de vacación. Se podrá denegar la solicitud cuando la plantilla acumule el 20 % entre Incapacidad temporal, licencias anteriormente concedidas o vacaciones.

Artículo 19. *Trabajos de superior e inferior categoría.*

Queda prohibido destinar al personal a realizar tareas correspondientes a una categoría inferior. Cuando se destine al personal a tareas correspondientes a una categoría superior, por un periodo superior a cuatro meses durante un año a seis meses durante dos años, podrá reclamar el ascenso siempre que esté en posesión de la titulación correspondiente y el puesto lo requiera. Percibiendo no obstante la diferencia retributiva entre la categoría asignada y la función que efectivamente realice.

A la hora de pactar la prestación laboral, cuando se acuerde entre trabajadora y empresario la polivalencia funcional o realización de funciones propias de más de un grupo, la retribución salarial se determinará por las funciones que resultan prevalentes –las del grupo superior–, y no por las funciones que se desempeñan durante mayor tiempo.

20. artikulua. Probaldia.

Nahi izanez gero, probaldia itundu ahal izango da, idatziz, eta honako muga hauekin taldeen arabera:

- I. Administratzailea, kudeatzailea eta antzekoak: 6 hilabete.
- II. Goi-mailako titulaziodunak eta agintariak: 3 hilabete.
- III. Erdi-mailako titulaziodunak: Hilabete.
- IV. Langile teknikoak eta bitarteko agintariak: 15 egun (taldeko arduradunak izan ezik, horientzat, hilabetekoa izango baita).
- V. Menpekoak: 14 egun.

Probaldia idatziz itundu beharko da, eta, indarrean dagoen bitartean, alderdi kontratugileek lan-harremana suntsiarazi ahal izango dute, alde bakarretik eta askatasunez, aurrez gaztigua egin beharrik gabe eta inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Probaldian egon bitartean, langileak bere lanbide-kategoria-ko eta berak betetzen duen lanpostuko eskubide eta betebeharrak izango ditu, alderdi batek nahiz besteak eskaturik probaldia indarrean dagoen bitartean lan-harremana suntsitzearen ondoriozkoak izan ezik.

Probaldia bukatzen bada atzera egiterik egon gabe, kontratuak eragin osoak izango ditu, eta egindako zerbitzuak kontuan hartuko dira langileak enpresan duen antzintasuna zenbatzean.

Langileak probaldian dagoen bitartean aldi baterako ezintasun-egoeran geratzen bada, probaldiaren zenbaketa eten egingo da, bi alderdiek bestelakorik adosten ez badute.

Kontratututako langileak lehenago ere enpresan lanean aritu bada, probaldia gainditu duela joko da.

21. artikulua. Enpresa borondatez uztea.

Enpresan egiten duen lana bere borondatez utzi nahi duen langileak enpresari jakinarazi beharko dio aldez aurretik, eta epe hauek izango ditu aurregazitigu hori egiteko:

- a) Langile laguntzaileak eta kualifikaziorik gabekoak: Hamabost egun.
- b) Erdi-mailako titulazioa duten langileak, langile teknikoak eta bitarteko agintariak: Hilabetea.
- c) Goi-mailako titulua duten langileak, agintariak: Bi hilabete.

Langileak aurregazitigua behar den epean eta eran egiten badu, enpresak une horretan kalkulatu ahal diren kontzeptu finkeo kitapena egin beharko du epea bukatzean. Gainerakoei dagokienez, hurrengo hileko ordainketa egin behar den egunean bete ahal izango dira. Enpresak azken kitatzearen fotokopia aurkeztu beharko du, bera sinatu baino hiru egun baliadun lehenago.

Enpresak egiteko hori betetzen ez badu, langileak bi eguneko soldata jasotzeko eskubidea izango du kitapena ordaintzean atzeratutako egun bakoitzeko, kalte-ordain gisa. Kalte-ordain horren gehieneko muga aurregazitigua jakinarazteko epearen egunkopurua izango da.

Langileak lan-harremana bere borondatez amaitu duela eta bere lan-eskubideak bete direla adierazten duen agiria langileen delegatuen, enpresako batzordearen edo delegatu sindikalen eskura egongo da bi laneguneko epean, interesduna horren aurka agertzen ez bada.

Aurregazitigua ezarritako moduan jakinarazten ez bada, enpresak, kitapena egiteko unean ordaindu beharreko zati proportzionalatik, benetako ordainsariaren eguneko baliokidea kendu ahal izango du, lehen finkatutako aurregazitiguko araudian huts egindako egun bakoitzeko.

Enpresak adierazi beharko du langileak egin dizkion berriemateak jaso dituela.

Artículo 20. Periodo de prueba.

Podrá concertarse, por escrito, un período de prueba, que en ningún caso podrá exceder según los Grupos:

- I. Administradora, gerentes y similares: 6 meses.
- II. Tituladas superiores y mandos: 3 meses.
- III. Tituladas medias: 1 mes.
- IV. Personal técnico y mandos intermedios: 15 días (excepto responsables de equipo que será de 1 mes).
- V. Subalternas: 14 días.

El periodo de prueba deberá ser pactado por escrito pudiendo, durante la vigencia del mismo, las partes contratantes resolver, de forma unilateral y libremente la relación laboral sin necesidad de preaviso y sin derecho a indemnización alguna.

Durante el periodo de prueba el/la trabajador/a tendrá los derechos y obligaciones correspondientes a su categoría profesional y al puesto de trabajo que desempeñen, excepto los derivados de la resolución de la relación laboral, que podrá producirse a instancia de cualquiera de las partes durante su transcurso.

Transcurrido el periodo de prueba sin que se haya producido el desistimiento, el contrato producirá plenos efectos, computándose el tiempo de los servicios prestados en la antigüedad de la trabajadora en la empresa.

La situación de Incapacidad Temporal que afecte a la trabajadora durante el periodo de prueba interrumpe el cómputo del mismo, salvo que se acordare lo contrario entre las partes.

En el caso de que la persona contratada hubiere trabajado anteriormente en la misma empresa, se entiende superado el período de prueba.

Artículo 21. Ceses en la empresa.

Las/os trabajadoras/es que deseen cesar voluntariamente en el servicio de la empresa, vendrán obligados a ponerlo en conocimiento de la misma, cumpliendo los siguientes plazos de preaviso:

- a) Auxiliares y No cualificados: Quince días.
- b) Personal Titulado Medio, Personal Técnico y Mandos Intermedios: Un mes.
- c) Personal Titulado Superior, Mandos: Dos meses.

Habiendo avisado con la referida antelación, la empresa vendrá obligada a liquidar al finalizar de dicho plazo los conceptos fijos que puedan ser calculados en tal momento. El resto de ellos lo podrá hacer efectivo en la fecha en que correspondiera hacer efectiva la siguiente mensualidad en el momento habitual de pago, la empresa estará obligada a proporcionar copia del finiquito 3 días hábiles antes de la firma del mismo.

El incumplimiento de esta obligación imputable a la Empresa, llevará aparejado el derecho del/la trabajador/a a ser indemnizada con el importe de dos días de salario por cada día de retraso en la liquidación, con el límite de la duración del propio plazo de preaviso.

El documento en el cual una persona trabajadora declare voluntariamente terminada la relación laboral, y satisfechos sus derechos laborales estará a disposición de la delegada del personal, o sección sindical en el plazo de dos días laborables, salvo que la interesada se oponga.

La falta de preaviso establecido facultará a la empresa para deducir de las partes proporcionales a abonar en el momento de la liquidación el equivalente diario de su retribución real por cada día que falte en el reglamentario preaviso anteriormente fijado.

La empresa viene obligada a acusar recibo de las comunicaciones efectuada por las personas trabajadoras.

III. KAPITULUA

LANALDIA, ATSEDENALDIK ETA JAIEGUNAK, OPORRAK ETA APARTEKO ZERBITZUAK

22. artikulua. Lanaldia.

Urteko lanaldia gehienez ere 1.592 ordukoa izango da (astean 35 ordu).

Egunka, langile bakoitzak urtean gehienez ere 228 lan-egun izango ditu.

Eguneko lanaldi bakoitzean arazuko geldialdi bat egingo da, 20 minutuko iraupenekoa, eta denbora hori lan egindako aldi-tzat joko da ondorio guztietarako. Bestalde, ondoz ondoko bost ordu baino gehiago irauten duen lanaldia eguneko lanaldia dela joko da. Lanaldi arruntaren edo normalaren iraupenari dagokionez, ez da kontuan hartuko ezbeharrei edo ezohiko eta presazko gertakariei aurrea hartzeko edo horiek konpontzeko lan egindako orduen gaindikina.

23. artikulua. Laneko egutegia.

Lana antolatzea Enpresako Zuzendaritzaren ahalmena eta erantzukizuna da, baina hitzarmen kolektibo honek eta indarrean dauden legeek ezarritakoa bete beharko da, horiek langileen ordezkarietara edo ordezkari sindikalei esleitzen dietena aintzat hartuz.

Lanaldiaren banaketa osoa jasotzen duen laneko egutegia enpresan edo establezimenduan finkatuko da urteko lehen hiruhilekoan. Horretarako, langileen ordezkarietara itundu beharko da, eta kapitulu honek ezarritako irizpideak eta arauak bete beharko dira. Egutegiak langile bakoitzaren lanaldiak, txandak, atsedenaldiak eta oporrak jaso beharko ditu.

24. artikulua. Gutxieneko atsedenaldiak.

Lana antolatzeko araubidea edozein dela ere, lanaldi baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren artean, gutxienez, hamabi ordu egongo dira.

Langileek eskubidea izango dute asteen etenik gabeko egun eta erdiko atsedentaldia izateko gutxienez.

25. artikulua. Gauez lan egitea.

Gaueko hamarretatik (22:00etatik) goizeko zortziak (8:00) bitartean lan egindako orduak gaueko lantzat hartuko dira.

26. artikulua. Igandeetan eta jaiegunetan lan egitea.

Bezperako gaueko hamarretatik (22:00etatik) igandeko edo jaieguneko gaueko hamarretatik (22:00ak) bitartean lan egindako orduak igandeetako edo jaiegunetako lantzat hartuko dira.

27. artikulua. Lanaldiaren praktikabilitatea.

Langile guztiak lehentasunezko eskubidea izango dute 22. artikuluan ezarritako urteko gehienezko lanaldia zenbatzeko. Ez da horrela izango, ordea, langilearen dedikazioa berezia bada eta, langileak berariaz horrela erabakita, ordutegia murriztuta badu.

28. artikulua. Lanaldi partzialeko lana.

Langile batekin ezarritako lanaldi partzialeko kontratu guztiak (edozein direla ere) asteen gutxienez 25 ordukoak izango dira. Nolanahi ere, zerbitzu-arrazoiengatik ezinezkoa den kasuetan, gutxienezko erabilzailerei arreta emateko zerbitzuari lotutako kontratazio-lanaldia izango da. Antolakuntzak ahalbidetzen badu, beste edozein kontratu egin baino lehen, gutxienezko hori asteen 25 ordutara igoko da.

29. artikulua. Oporrak.

Oporrak ondoz ondoko egutegiko 31 egunekoak izango dira, eta egun horietatik 26 lanegunak izango dira. Alderdiak bat etorri gero, oporrak bi denboralditan hartu ahal izango dira.

CAPÍTULO III

JORNADA DE TRABAJO, DESCANSOS Y FIESTAS, VACACIONES Y SERVICIOS EXTRAORDINARIOS

Artículo 22. Tiempo de trabajo.

La jornada laboral del personal tendrá una duración máxima de 1.592 horas anuales (35 horas semanales).

El número máximo de jornadas diarias por cada trabajadora será la jornada de 228 días.

Se establece una pausa reglamentaria por jornada diaria de una duración de 20 minutos, que será a todos los efectos tiempo de trabajo efectivo, entendiéndose como jornada diaria aquella que sea de más de 5 horas continuadas. No se tendrá en cuenta a efectos de la duración ordinaria o normal el exceso de horas trabajadas para prevenir o reparar siniestros y otros daños extraordinarios y urgentes.

Artículo 23. Calendario laboral.

La organización de trabajo es facultad y responsabilidad de la Dirección de la empresa, con sujeción a este Convenio Colectivo y a la legislación vigente que éstas asignan a la representación unitaria o sindical del personal.

El calendario laboral conteniendo la distribución total de la jornada laboral se establecerá en la empresa o establecimiento respectivo pactándose con la representación de los/las trabajadores/as, respetándose los criterios y normas establecidos en este Capítulo, para el primer trimestre del año. En él habrán de contemplarse para cada persona trabajadora las jornadas a trabajar, el turno, los descansos, y los períodos de vacaciones.

Artículo 24. Descansos mínimos.

Cualquiera que sea el régimen de organización del trabajo, entre el final de una jornada y el comienzo de la siguiente mediarán, como mínimo, doce horas.

Las personas trabajadoras tendrán derecho a un período mínimo de descanso semanal de día y medio ininterrumpido.

Artículo 25. Trabajo en periodo nocturno.

Se entenderá por trabajo en período nocturno o en turno de noche el efectuado entre las diez de la noche (22:00 horas) y las ocho de la mañana (8:00 horas).

Artículo 26. Trabajo en domingo y festivo.

En caso de que se realizare, se entenderá por trabajo en domingo o festivo el efectuado entre las 22:00 horas del día de la víspera y las 22:00 horas del domingo o festivo.

Artículo 27. Practicabilidad de la jornada.

Excepto en aquellos casos en que la dedicación de la trabajadora sea singular y con un horario específicamente reducido por expresa decisión propia, todas las trabajadoras tendrán derecho preferente a computar la jornada anual máxima establecida en el art. 22.

Artículo 28. Trabajo a tiempo parcial.

Cualquiera que sea el contrato a tiempo parcial que se establezca será, como mínimo de 25 horas semanales. En todo caso en aquellas ocasiones que por razones de servicio esto no sea posible, el mínimo será la jornada de contratación ligada al servicio de atención a la/s Persona/s Usuaría/s. Siempre que organizativamente sea posible, antes de realizar cualquier otro contrato se ampliará este hasta 25 horas semanales.

Artículo 29. Vacaciones.

Las vacaciones serán de 31 días naturales ininterrumpidos, de los cuales 26 serán laborables. Si existe acuerdo entre las partes podrán disfrutarse en dos periodos.

Oporrak ezingo dira dirutan konpentsatu, ez zati bat, ez oso-rik. Dena dela, urtean zehar, lan-harremana bukatzen bada eta langileak opor guztiak hartu ez baditu, orduan, era horretan konpentsatu ahal izango dira.

Langileak edozein urte-garaitan hartu ahal izango ditu opor-rrak, baina lehentasunez hartuko ditu ekaina eta iraila bitartean. Dena dela, denboraldi horretan aldi berean oporrek hartzen di- tuzten langileak ez dira % 23 baino gehiago izango.

Oporren egutegiak eginda egon beharko du lehen hiruhile-koan, eta langileen ordezkariek bat etorriko dira harekin. Lehenik, antzinasunaren hurrenkerari jarraituko zaio, eta, gero, txandaka egingo da.

Dagozkion urte naturalaren barnean hasi eta amaituko dira opor-rrak. Jarraian aipatzen ez den beste arrazoi batengatik lan- gileak aldi baterako ezintasunen bat badu oporraldian eta ezin baditu hartu opor guztiak edo oporren zati bat oporren urte na- tural berean, eskubidea du oporrek ezintasuna amaitzean har- tzeko, oporren urte naturala amaitu eta 18 hilabete baino gehia- go igaro ez badira. Haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak eragindako aldi baterako ezintasunaren kasuan, edo legeak in- guruabar horiekin lotuta adierazten duen kontratu-etenaldiaren kasuan, oporrek hartu ahal izango dira, dagozkion urte naturala amaitu bada ere.

Oporraldia eten ahal izango da ohiz kanpoko gertaeren on- dorioz, hala nola, gaixotu edo istripua izan eta ospitaleratu be- har izanez gero; eta interesdunak eskubidea izango du oporrek egoera hori igaro ondoren amaitzeko, dagozkion urte naturalaren barruan.

Langileak urte barruan atsedendialdiak, jaiegunak, lizentziak eta baimenak hartu arren, urteko oporrek hartzeko eskubidea izango du, eta ezingo zaizkio dagozkion opor-egunak murriztu.

30. artikulua. Aparteko orduak.

Laneko egutegietan ezarrita dauden lanaldietako orduak gainditzeak ez du jarduera arrunta izan behar hainbeste langa- betu dituen herri honetan. Hortaz, ezingo da aparteko ordurik egin, ezinbesteko kasuz izan ezik, alegia, ohiz kanpoko eta pre- miazko istripuei eta kalteei aurre egiteko edo horiek konpontze- ko izan ezik.

Ohiko lanaldia gainditzen duen lanordu bakoitza atseden- denborarekin konpentsatuko da. Lan egindako ordu arrunt ba- koitzeko 1,75 emango da, eta lan egindako ordua gauez, jaie- gun batean edo larunbatean izan bada, 2,00 emango da ordu bakoitzeko. Atsedena 30 egunen barruan hartu beharko da, lan- gileak aparteko orduak egiten dituenetik hasita; langileak auke- ran izango du noiz hartu.

IV. KAPITULUA

ORDAINSARIAK

31. artikulua. Ordaintzeko era eta soldatak jasotzea.

Langileek aukeratuko dute zein bankutako edo aurrezki-ku- tetako kontuan edo libretan nahi duten nomina helbideratu. Hi- leko soldaten ordainketa bukatutako hileena izango da, eta hi- laren azken egunaren eta hurrengo hilaren bosgarren egunaren artean egingo da.

32. artikulua. Aurrerakinak.

Aurrerakin arruntak emango dira, batere interesik gabe, ge- hienez, sortutako hileko soldata likidoaren % 100ekoak. Aurre- rakin horiek zazpi egunen barruan ordainduko dira gehienez, es- kaera egiten den egunetik hasita, baldin eta enpresaren barne- antolamenduak horretarako aukera ematen badu.

Las vacaciones no podrán ser compensadas en metálico ni en todo ni en parte, salvo cuando en el transcurso del año se pro- duzca la extinción de la relación laboral y aún no haya disfrutado o completado en su totalidad el disfrute del período vacacional.

Será posible disfrutar las vacaciones en cualquier época del año, siendo el período preferencial de disfrute entre junio y sep- tiembre, siempre que el porcentaje de personas que disfruten vacaciones a la vez, no supere el 23 %.

El calendario de vacaciones deberá estar realizado en el pri- mer trimestre. De acuerdo con la representación de personal, primero por orden de antigüedad y posteriormente de forma ro- tativa.

El comienzo y terminación de las vacaciones obrará dentro del año natural a que éstas correspondan. En el supuesto de que el periodo de vacaciones coincida con una incapacidad temporal por contingencias distintas a las que se indicarán a continuación que imposibilite a la persona trabajadora disfrutar- las, total o parcialmente, durante el año natural a que corres- ponden, la persona trabajadora podrá hacerlo una vez finalice su incapacidad y siempre que no hayan transcurrido más de dieciocho meses a partir del final del año en que se hayan ori- ginado. En el caso de incapacidad temporal derivada del emba- razo, parto o lactancia o con el periodo de suspensión del con- trato que se indica en la ley relacionado con estas circunstan- cias, las vacaciones se podrán disfrutar aunque haya terminado el año natural a que correspondan.

El periodo de vacaciones podrá ser interrumpido si medianan circunstancias extraordinarias como enfermedad o accidente con hospitalización, conservando el/la interesado/a el derecho a completar su disfrute una vez transcurridas dichas circunstan- cias, dentro del año natural a que tal periodo corresponda.

Los descansos, fiestas, licencias y permisos disfrutados du- rante el año no privarán al personal del derecho a las vacacio- nes anuales, ni podrán reducir el número de días que le corres- ponden.

Artículo 30. Horas extraordinarias.

La realización de jornadas laborales superiores a las estable- cidas en los calendarios laborales es una práctica que no puede mantenerse como normal en un país en el que tantas personas se encuentra sin empleo, por lo que queda suprimida la posibili- dad de realizar horas extraordinarias, salvo en los supuestos ex- cepcionales de fuerza mayor, es decir, cuando se trate de preve- nir o reparar siniestros y daños extraordinarios y urgentes.

Cada hora de trabajo que sobrepase la jornada laboral ordi- naria se compensará con tiempo de descanso, a razón de 1,75 por hora trabajada normal y de 2,00 por hora trabajada cuando resulte nocturna, festiva o en sábado. El descanso, deberá dis- frutarse dentro de los 30 días a partir de la realización de las mismas a elección de la trabajadora.

CAPÍTULO IV

RETRIBUCIONES

Artículo 31. Forma de pago y recibo de salarios.

Las trabajadoras tienen derecho a domiciliar sus nóminas en cuentas o libretas de Entidades bancarias o Cajas de Ahorro de su elección. El pago de los salarios mensuales se efectuará por meses vencidos, entre el último día del mes y el día cinco del mes siguiente.

Artículo 32. Anticipos.

Se concederán anticipos ordinarios, sin interés alguno, de hasta el 100 % del salario líquido mensual devengado, que se harán efectivos en el plazo máximo de siete días desde la fecha de solicitud, siempre y cuando la organización interna de la em- presa lo permita.

33. artikulua. Ordainketaren egitura. Soldaten kontzeptuak. Plusak.

– Oinarrizko soldata:

Langilearen lanbide-taldeari eta -kategoriai dagokion hileko ordainketaren zatia da; oinarrizko soldataren zenbatekoak I. eranskinean ezarrita daude.

– Aparteko ordainsariak:

Aparteko hiru ordainsari ordainduko dira. Horietako bat hilebete guztien artean hainbanatuko da, eta beste biak, berriz, honela, ekainekoa, hileko soldatarekin batera ordainduko da, eta, abendukoa, 19. eguna baino lehen. Aparteko ordainsariaren zenbatekoa azken hileko sei nominen batez bestekoa izango da, eta, nomina finkoa bada, azken hileko soldatarena.

Urtean barrena lanean hasten diren edo lana uzten duten langileen aparteko orduen zenbatekoa zerbitzuko denboraren arabera hainbanatuko da, sei hilabetekoa.

– Antzinasuneko plusa:

Zenbatekoa I. eranskinean Zerbitzuan egindako bosturteko (bosturtekoak) bakoitzeko ezarritako kopurua izango da, kontratu-mota guztiekin, bai finkoekin bai aldi baterako direnekin.

– Gaueko plusa:

Gauetz lan egindako orduak ordainsari berezia izango dute, hain zuzen, oinarrizko soldata % 25eko gehikuntza izango dute. Gaueko txanda finkoa duen langileak aukeran izango du bere soldata % 25 gehitzea edota bere lanaldiaren ehuneko bera murriztea.

– Igandeetan eta jaiegunetan lan egiteagatik plusa:

Ondorio horietarako, bezperako gaueko hamarren (22:00) eta igandeko edo jaieguneko gaueko hamarren (22:00) artean dagoen denboraldia joko da igandetzat edo jaiegunetzat. Beneran lan egindako ordu bakoitzeko, kategoria bakoitzari dagokion orduaren prezio osoaren % 30 jasoko da.

Eguberri- eta urte berri-eguna egun bereziak direnez, jaiegun bereziak direla joko da. Abenduaren 24tik 25era arteko gaueko txanda hasten denetik 25eko arratsaldeko txanda bukatu arte zerbitzu egiten duten langileek eta, orobat, abenduaren 31tik urtarrilaren 1a arteko gaueko txanda hasten denetik urtarrilaren 1eko arratsaldeko txanda bukatu arte lanean aritzen direnek beren kategoriarik dagokion orduaren prezio osoaren % 60a jasoko dute. Eguberri-egunean lanean aritzen direnak ez dute lan egingo urte berri-egunean, eta alderantziz.

– Garraio plusa:

Soldatakoa ez den eta Gizarte Segurantzari kotizatu ezin zaion garraio-plusa ezartzen da: 2 € lan egindako egun bakoitzeko. Kopuru hori 11 hilabetetan ordainduko da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Egun horietan (urtarrilaren 1ean eta 6an, eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n) lantokira joateko garraio publikorik ez bada, langileari taxiaren prezioa ordainduko zaio, faktura aurkeztu eta zenbatekoa egiaztatuta ondoren.

– Bidaiengatik plusa:

Zerbitzu batetik bestera bidaiatzeagatik 50 euroko plusa ordainduko da, urtean 11 ordainsaritan. Kopuru hori lanaldiaren proportzionala izango da. Plus hori 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

34. artikulua. Ordainsariak.

2021-2024 urteetarako langile guztientzako ordainsariak honako hauek izango dira:

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren gutxieneko ordainsarien taulak sortzeko, hitzarmen honetako 2020ko soldata taulei % 0,75eko gehikuntza aplikatuko zaie.

Artículo 33. Estructura retributiva. Conceptos salariales. Pluses.

– Salario base:

Es la parte de la retribución mensual del personal fijada para su grupo y categoría profesional, en las cuantías establecidas en el anexo I.

– Pagas extras:

Se abonarán tres pagas extras. Una se prorrateará todos los meses y las otras dos que se harán efectivas en junio junto con la mensualidad y en diciembre no más tarde del día 19; su cuantía será la media de los seis últimas nóminas mensuales o la misma que la mensualidad, cuando ésta sea fija.

El importe de las pagas extras correspondientes al personal que cese o ingrese en el transcurso del año será el proporcional al tiempo de servicio por semestres.

– Plus de antigüedad:

Será la cuantía establecida en el anexo I por cada cinco años (quinquenios) de servicio prestados en la Empresa, en cualquier modalidad de contrato, sea fijo o eventual.

– Plus de nocturnidad:

Las horas trabajadas en período nocturno tendrán una retribución específica con un incremento sobre el salario base de un 25 %. La trabajadora de turno fijo de noche elegirá entre incrementar un 25 % su salario o reducir su jornada en el mismo porcentaje.

– Plus por trabajo en domingo y/o Festivo:

Se considera domingo o festivo al tiempo que media entre las 22:00 horas del día de la víspera y las 22:00 horas del día festivo. Por cada hora real y efectivamente trabajada se percibirá un 30 % del precio hora total correspondiente a cada categoría.

Por su especial significado se considerarán festivos especiales Navidad y Año Nuevo. El personal que preste sus servicios desde el inicio del turno de noche del 24 al 25 de diciembre hasta la finalización del turno de tarde del día 25, y desde el inicio del turno de la noche del 31 de diciembre al 1 de enero y hasta la finalización del turno de tarde del día 1 de enero, serán abonadas con un 60 % del precio hora total correspondiente a cada categoría. Quien trabaje el día de Navidad no lo hará el de Año Nuevo y viceversa.

– Plus transporte:

Se establece un plus de transporte no salarial y no cotizable a la Seguridad Social en la cuantía de 2 € por cada día trabajado. Esta cantidad se abonará por 11 meses a partir del 1 de enero de 2022.

Cuando no exista transporte público para el desplazamiento al centro de trabajo en fechas señaladas (1 y 6 de enero, 24, 25 y 31 de diciembre) se pagará el coste del desplazamiento en taxi, previa acreditación de su importe mediante la correspondiente factura.

– Plus desplazamiento:

Se bonificará el desplazamiento entre servicio y servicio con un plus por desplazamiento de 50 euros por 11 pagas al año. Cantidad que se percibirá proporcional a la jornada. Este Plus se aplicará a partir del 1 de enero de 2022.

Artículo 34. Retribuciones.

Las retribuciones para todo el personal durante los años 2021-2024 serán las siguientes:

Las Tablas de retribuciones mínimas con vigencia desde el 1 de enero de 2021, se elaborarán aplicando un aumento del 0,75 % sobre las tablas salariales del 2020 del presente convenio.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren gutxieneko ordainsarien taulak sortzeko, 2021eko KPIren igoera (estatukoa) + % 0,5 aplikatuko da, hitzarmen honetako 2021eko soldata-taulen gainean gutxienez % 4 bermatuta.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren gutxieneko ordainsarien taulak sortzeko, 2022ko KPIren igoera (estatukoa) + % 0,5 aplikatuko da, hitzarmen honetako 2022ko soldata-taulen gainean gutxienez % 4 bermatuta.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren gutxieneko ordainsarien taulak sortzeko, 2023ko KPIren igoera (estatukoa) + % 0,5 aplikatuko da, hitzarmen honetako 2023ko soldata-taulen gainean gutxienez % 2 bermatuta.

35. artikulua. *Dietak, joan-etorrien gastuak eta kilometrajea.*

Langileek, enpresak aginduta, enpresa edo establezimendu dagoen herria ez den toki batera joan behar badute eta, horren ondorioz, ezin badute beren etxean bazkaldu, ezta gaua igaro ere, orduan, honako kalte-ordain hauek jasoko dituzte:

Gosaria: 4 €.

Bazkaria: 18 €.

Afaria: 12 €.

Langileek beren ibilgailua erabili behar badute lanerako, 0,33 euro emango zaie autoan edo motorrean egindako kilometro bakoitzeko, kalte-ordain gisa.

V. KAPITULUA

LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESZEDENTZIAK

36. artikulua. *Ordaindutako lizentziak oro har.*

Langileak, aldez aurretik jakinarazten badu eta behar bezala egiaztatzen badu, ordaindutako lizentziak jaso ahal izango ditu, honako arrazoietako bat tartean badago eta jarraian finkatutako denborarengatik:

a) Norbera ezkontzeagatik: Egutegiko hogeitun egun.

b) Aitatasunagatik baimena: Semea edo alaba jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik, aitak 16 asteko baimena hartzeko eskubidea izango du, jaiotza-datatik edo adoptatua bizilekura heltzen denetik zenbatzen hasita.

c) Ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik: 5 egun natural. Gurasoen edo neba-arreben kasuan, bai norberarenak, bai politikoa: 3 lanegun edo 5 egun natural. Odolkidetasuneko edo kideetasuneko bigarren mailarainoko (ezkontzakoak barne) ahaideen heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, baldin eta etxean atseden hartzea beharrezkoa bada: 2 egun.

d) Ezkontidearen edo seme-alabaren baten gaixotasun larriarengatik: Egutegiko 5 egun. Aitaren, amaren edo anai-arrebarren baten gaixotasun larriarengatik: Egutegiko 3 egun. Ondorio horietarako, gaixotasun larria da medikuak, hasierako ziurtagiriaren edo alderdiek geroago egindako eskaeran, larritzat jo duen gaixotasuna. Nolanahi ere, gaixotasuna dela-eta langilea ospitaleratu behar bada, hori gaixotasun larritzat joko da. Kasu horretan, ospitalean eman beharreko denborak lizentzian ezarritakoak baino gutxiago irauten badu, orduan, ospitalean eman beharreko denbora bukatzen denean amaituko da lizentzia. Ospitalera sartu behar den bakoitzean, beste lizentzia bat hartu ahal izango da.

e) Lanorduetan mediku espezialista batengana joan behar duen langileak ordaindutako lizentzia-orduak hartu ahal izango ditu. Langileak lizentzia hori eskatu beharko du, eta, hartu baino lehen, behar bezala egiaztatu beharko dio enpresari. Bestalde, zerbitzua antolatzea eta egitea enpresaren ardura izango da.

f) Haurdun dauden langileak lanera joan gabe egon ahal izango dira, ordainsaria jasotzeko eskubidearekin, haurra jaiotze aurreko azterketetara eta erditzea prestatzeko saioretara joate-

Las Tablas de retribuciones mínimas con vigencia desde el 1 de enero de 2022, se elaborarán aplicando un aumento del IPC (Estatal) 2021 + 0,5 % con una garantía mínima del 4 % sobre las tablas salariales del 2021 del presente convenio.

Las Tablas de retribuciones mínimas con vigencia desde el 1 de enero de 2023, se elaborarán aplicando un aumento del IPC (Estatal) 2022 + 0,5 % con una garantía mínima del 4 % sobre las tablas salariales del 2022 del presente convenio.

Las Tablas de retribuciones mínimas con vigencia desde el 1 de enero de 2024, se elaborarán aplicando un aumento del IPC (Estatal) 2023 + 0,5 % con una garantía mínima del 2 % sobre las tablas salariales del 2023 del presente convenio.

Artículo 35. *Dietas, gastos de desplazamiento y kilometrajes.*

El personal que por orden de la Empresa tenga que efectuar viajes o desplazamientos a población distinta a aquella en que radica la empresa o establecimiento y que les impida efectuar comida o pernoctaciones en su domicilio percibirán las indemnizaciones siguientes:

Desayuno: 4 €.

Comida: 18 €.

Cena: 12 €.

El personal que venga obligado a utilizar su vehículo para el trabajo será indemnizado con 0,33/km en coche o en moto.

CAPÍTULO V

LICENCIAS, PERMISOS Y EXCEDENCIAS

Artículo 36. *Licencias retribuidas en general.*

El personal trabajador, previo aviso y justificación tendrá derecho a licencias retribuidas por alguno de los motivos, y por el tiempo, siguientes:

a) Veinte días naturales en caso de matrimonio propio.

b) Permiso por paternidad: Por el nacimiento de un hijo/a, o en caso de adopción, el padre tendrá derecho a un permiso de 16 semanas, a partir de la fecha de nacimiento o de la llegada del adoptado al hogar.

c) Por fallecimiento del cónyuge e hijos/as: 5 días naturales. En los casos de padres/madres, hermanas o hermanos, tanto propios como políticos: 3 días laborales. o 5 naturales. En caso de fallecimiento, accidente o enfermedad graves, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario, de parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad (incluidos los políticos): 2 días.

d) Por enfermedad grave del cónyuge e hijas/os: 5 días naturales. De padres/madres y hermanas/os: 3 días naturales. A estos efectos se entenderá como enfermedad grave aquella que sea calificada como tal por el facultativo correspondiente, bien en la certificación inicial o a requerimiento posterior de las partes. En todo caso, se entenderá como enfermedad grave aquella que requiera hospitalización. En este supuesto la licencia terminará cuando finalice la hospitalización si ésta dura menos días que los previstos de licencia. Se tendrá derecho a una nueva licencia cada vez que se produzca una nueva hospitalización.

e) El personal que precise acudir al médico especialista en horas de trabajo, tendrá derecho a licencia retribuida, debiendo solicitarla y justificarla suficientemente para la empresa, con carácter previo, siendo competencia de esta la organización y prestación del servicio.

f) Las trabajadoras embarazadas podrán ausentarse del trabajo, con derecho a remuneración, para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación al parto, previo

ko. Dena dela, aldez aurrez, enpresaburua jakinaren gainean jarri beharko dute, eta azterketa horiek lanorduetan egin behar dituztela egiaztatu beharko dute.

Aipatutako lizentzietarako eskubidea izateko, eskabidea idatziz egin beharko da, gutxienez bost eguneko aurrerapenarekin, eskabidea egiteko gertaera eragileak horretarako aukera ematen badu, bestela ez.

g) Ohiko etxebizitza aldatzeagatik: Egun bat.

h) Seme-alabaren bat edo anai-arrebaren bat ezkontzeagatik: Egun bat.

i) Izaera publikoko edo norberaren nahitaezko eginbeharrak betetzeko baimena. Eginbeharra lanorduetatik kanpo ezin bada egin, eginbeharra betetzeko behar den beste denbora emango da.

j) Izatezko bikoteak: Izatezko bikoteak, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuta badaude, ezkonduka baleude bezala joko dira a), c), d), e) eta f) idatz-zatietan jasota dauden lizentzien ondorioetarako.

k) Norberaren arazoengatik: Egutegiko bi egun; egun horiek bost egun lehenago eskatu beharko dira, eta, hartu ahal izateko, ezingo dira baimenarekin batera egon plantillako langileen % 5 baino gehiago.

37. artikulua. *Gaurkotzeko, hobetzeko eta birgaitzeko ikastaroak egiteko ordaindutako lizentziak.*

– Hobekuntza-ikastaroak:

Hobekuntza-ikastaroak enpresak edo langileek eskatu ahal izango dituzte, eta onarpen librekoak izango dira. Enpresa arduratuko da ikastaroen kostua eta langileek ikastaroetan emandako denboraren % 100a ordaintzeaz.

Plantillako langileen % 5ak baino gehiagok hobekuntza-ikastaroetara joateko eskaera egin badu eta opor-garaia ez bada, orduan, lantokiko titularrak, baimenak era egokian emateko, zerbitzuak dituen premiak, antzinasuneko merituak eta interesduinak baimen hori eskatu gabe emandako denbora hartuko ditu aintzat.

– Azterketak egiteko lizentziak:

Lanbideko titulua lortzeko ikasten ari diren langileak dituzten enpresek beharrezkoak diren lizentziak emango dizkiete langile horiei, deialdi ofizialeko azterketak egin ditzaten, ordainsariari kalterik egin gabe. Aurrez, interesdunek ikasketa horien matrikularen egiaztatzea egin beharko dute, eta azterketa egin dutela ere egiaztatu beharko dute. Lizentziaren iraupena egun batekoa izango da azterketa bakoitzeko, baina, 200 kilometro baino gehiago ibili behar izanez gero, egutegiko hiru egun luzatu ahal izango da.

Artikulu honetatik kanpo geratzen da egungo homologazio-prozesua.

38. artikulua. *Ordaindu gabeko lizentziak.*

Langile guztiek 30 eguneko baimena eskatu ahal izango dute gehienez urte bakoitzeko eta soldatarik gabe; eta baimen hori eman beharko zaie, langileek 7 egun lehenago eskatu badute eta enpresan horrelako baimena aldi berean hartu duten langileen kopurua % 5etik gorakoa ez bada. Baimena 5 egunetik beherakoa bada, deskontua hileko nominan dagokion zatian baino ez da egingo; baina baimenak epe hori gainditzen badu, deskontuak aparteko ordainketen eta/edo oporren zatian ere izango du eragina.

39. artikulua. *Amatasuneko lizentzia.*

Umea edukiz gero, amatasuneko lizentziak 16 aste iraungo du, eta aste horiek etenik gabe hartuko dira. Bestalde, erditze multiplea izan eta bikiak edukiz gero, denbora hori bi aste luza-

aviso al empresario y justificación de la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo.

Por tener derecho a las licencias aludidas, la solicitud deberá hacerse por escrito con al menos cinco días de antelación, salvo en el caso en que el hecho causante de la petición no permita observar dicho plazo.

g) Un día por traslado de domicilio habitual.

h) Un día por boda de un hijo/a o hermano/a.

i) Permiso por cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público y personal. Tendrán derecho a licencia durante el tiempo necesario para el cumplimiento siempre y cuando el mismo no pueda efectuarse fuera del horario de trabajo.

j) Parejas de hecho: Las parejas de hecho, debidamente inscritas en el correspondiente registro, tendrán consideración de matrimonio a los efectos de licencias contempladas en los apartados a), c), d) e), y f).

k) Por asuntos propios: Dos días naturales, que deberá ser solicitado con 5 días de antelación y siempre y cuando no se encuentren disfrutando permiso más del 5 % del personal de la plantilla.

Artículo 37. *Licencias retribuidas para cursos de actualización, perfeccionamiento y reciclaje.*

– Cursos de perfeccionamiento:

Los cursos de perfeccionamiento podrán ser propuestos tanto por la empresa como por las personas trabajadoras y serán de libre aceptación, siendo a cargo de la Empresa su costo, así como el 100 % del tiempo empleado por las trabajadoras en los mismos.

Cuando el número de solicitudes concurrentes para el permiso de asistencia a cursos de perfeccionamiento sea superior al 5 % del personal de la plantilla y no sea época de vacaciones, el Titular del centro podrá establecer una adecuada concesión de los mismos con arreglo a las necesidades del servicio, a los méritos de antigüedad y al período transcurrido sin solicitar ese permiso por el interesado/a.

– Licencias para exámenes:

La empresa que tenga a su servicio personas trabajadoras que realicen estudios para la obtención de un título profesional, concederán a los mismos, sin perjuicio de su retribución, las licencias necesarias para que puedan concurrir a los exámenes de convocatoria oficial, previa justificación de los interesados de tener formalizada la matrícula de tales estudios y la justificación, asimismo, de haber asistido a los exámenes. La duración de las licencias será de 1 día por examen, pudiendo ampliarse a tres días naturales si hubiera desplazamiento superior a 200 km.

Queda fuera de este artículo el actual proceso de homologación.

Artículo 38. *Licencias no retribuidas.*

Todo el personal podrá solicitar hasta 30 días de permiso, sin sueldo, por año, que deberá serle concedido si la petición se hace con un preaviso de 7 días y siempre que no esté disfrutando simultáneamente de este tipo de permiso más del 5 % del personal. Si el permiso es por un período inferior a los 5 días el descuento solo afectará a la parte proporcional de la nómina del mes, en el caso de que superara este plazo el descuento afectará a la parte proporcional de pagas extras y/o vacaciones.

Artículo 39. *Licencia por maternidad.*

En el supuesto de parto, la licencia por maternidad tendrá una duración de 16 semanas, que se disfrutarán de forma interrumpida, ampliables en el supuesto de parto múltiple en dos se-

tu ahal izango da; eta, hirukiak izanez gero, lau aste. Interesdunak aukeratu du etenaldia nola banatu, baina, umea egin eta berehala, sei aste hartu beharko ditu.

Alabaina, aitik eta amak lan egiten badute, amatasuneko atsedenaldira hastean, amak, nahi badu, aitari utzi ahal izango dizkio lizentziako gainerako egunak edo egun horietako batzuk; dena dela, hori bakarrik egingo da lanean hasteko egunean lanean berriz hastea arriskutsua ez bada amaren osasunarentzat.

Amatasuneko etenaldia eta laneko egutegian finkatutako oporrak aldi berean badira, bi eskubideak osorik hartzea bermatuko zaio langileari.

40. artikulua. *Edoskitzea eta edoskitzeko orduak metatzeko aukera.*

Jaiotza, adopzio, adopzioarako zaintza edo harreretan, ordu-betez lantokitik kanpo egoteko eskubidea du langileak, denbora hori bi zatitan banatzeko moduan, bularreko haurrak bederatz hilabete egin arte.

Eskubide hori baliatzen duenak beste era batera ere erabil dezake, bere borondatez: lanaldia ordu erdiz murriztu dezake, helburu berarekin, edo bi aste gehiagoko lizentzia ordaindu hartu, amatasun-lizentziaren aldiaren jarraian.

Hala ere, enpresa bereko bi langilek subjektu kausatzaile beragatik baliatzen badute eskubide hori, zuzendaritzak mugatu egin dezake langileok eskubide hori aldi berean baliatzea, justifikatutako arrazoiak baldin badaude enpresaren funtzionamenduari begira. Edonola ere, zuzendaritzak idatziz jakinarazi beharko du bere erabakia.

41. artikulua. *Adopzioko edo harrerako lizentzia.*

Zazpi urtetik beherako adingabeak, edo zazpi urtetik gorakoak izan arren disfuntzio funtzionala diren edota atzerritik etorri direlako gizarte eta familiar txertatzeko zailtasun handiak –eskumena duten gizarte-zerbitzuek behar bezala egiaztatutakoak– dituzten adingabeak adoptatu edo hartuz gero, bai adoptatu aurretik bai betiko, lizentziak elkarren segidako 16 asteko iraupena izango du. Adopzioa edo harrera anizkuna bada, lizentzia bi aste gehiago luzatu ahal izango da seme-alaba bakoitzarengatik, bigarrenetik aurrera. Langileak nahi bezala zenbatuko ditu aste horiek: Haurra hartzeko administrazioko erabakia edo erabaki judiziala izan denetik aurrera, edo adopzioa gauzatzen duen ebazpen judizialek aurrera. Amak eta aitik lan egiten badute, interesdunek nahi duten moduan banatuko dute etenaldia, eta, horrenbestez, etenaldia aldi berean edo elkarren segidan hartu ahal izango dute, baina etenik gabeko denboraldiak egin beharko dituzte eta lehen aipatutako mugak kontuan hartu beharko dituzte.

Artikulu honek aipatzen dituen denboraldiak lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean hartu ahal izango dira, enpresaburuak eta ukitutako langileak bat etorri ondoren, eta arauk ezarritakoari jarraiki.

Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira aurrez joan behar badute, artikulu honek kasu ezartzen duen etenaldia adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da.

Atsedenaldira aldi berean hartzen badira, atsedene-egunen batuketara egitean, ez da aurreko idatz-zatietan ezarritako 16 asteko muga gaitutako. Orobat, erditze multiplea izan eta bikiak edo hirukiak edukiz gero, ez dira horri dagozkion asteak gaitutako.

Adopzioko edo harrerako etenaldia eta laneko egutegian ezarritako oporraldia aldi berean badira, bi denboraldiak osorik hartu ahal izateko eskubidea ziurtatuko da.

42. artikulua. *Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurriak.*

a) Legezko zainzagatiko lanaldi-murrizketa adingabeak 12 urte bete arte luzatuko da.

manas más en el caso de mellizos, cuatro con trillizos. El periodo de suspensión se distribuirá a opción de la interesada siempre que seis semanas sean inmediatamente posteriores al parto.

No obstante lo anterior, en el caso de que la madre y el padre trabajen, ésta, al iniciarse el periodo de descanso por maternidad, podrá optar porque el padre disfrute del resto o parte de los días de licencia, salvo que en el momento de su efectividad la incorporación al trabajo de la madre suponga un riesgo para su salud.

Cuando el periodo de suspensión por maternidad coincida con el periodo de vacaciones fijado en el calendario laboral se garantizará el disfrute de la totalidad de ambos derechos.

Artículo 40. *Lactancia, posibilidad de acumular.*

En los supuestos de nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción o acogimiento, las personas trabajadoras tendrán derecho a una hora de ausencia del trabajo, que podrán dividir en dos fracciones, para el cuidado del lactante hasta que este cumpla nueve meses.

Quien ejerza este derecho, por su voluntad, podrá sustituirlo por una reducción de su jornada en media hora con la misma finalidad o por dos semanas más de licencia retribuida, que deberá ser disfrutada a continuación del periodo de licencia maternal.

No obstante, si dos personas trabajadoras de la misma empresa ejercen este derecho por el mismo sujeto causante, la dirección empresarial podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones justificadas de funcionamiento de la empresa, que deberá comunicar por escrito.

Artículo 41. *Licencia por adopción o acogimiento.*

En el supuesto de adopción y acogimiento, tanto pre adoptivo como permanente, de menores de hasta 7 años o de menores mayores de 7 años cuando se trate de menores con disfunción funcional o que por provenir del extranjero, tengan especiales dificultades de inserción social y familiar debidamente acreditadas por los servicios sociales competentes, la licencia tendrá una duración de 16 semanas ininterrumpidas, ampliable en el supuesto de adopción o acogimiento múltiple en dos semanas más por cada hijo/o a partir del segundo, contadas a la elección de la trabajadora, bien a partir de la decisión administrativa o judicial de acogimiento, bien a partir de la resolución judicial por la que se constituye la adopción. En caso de que la madre y el padre trabajen, el periodo de suspensión se distribuirá a opción de los interesados, que podrán disfrutarlo de forma simultánea o sucesiva, siempre con periodos ininterrumpidos y con los límites señalados anteriormente.

Los periodos a los que se refiere el presente artículo podrán disfrutarse en régimen de jornada completa o a tiempo parcial, previo acuerdo entre la empresa y las trabajadoras afectadas, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

En los supuestos de adopción en el extranjero, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los padres al país de origen del adoptado, el periodo de suspensión, previsto para cada caso en el presente artículo podrá iniciarse hasta cuatro semanas antes de la resolución por lo que se constituye la adopción.

En los casos de disfrute simultáneo de periodos de descanso, la suma de los mismos no podrá exceder de las 16 semanas previstas en los apartados anteriores o de las correspondan en caso de parto múltiple.

Cuando el periodo de suspensión por adopción o acogimiento coincida con el periodo de vacaciones fijado en el calendario laboral se garantizará el disfrute de la totalidad de ambos derechos.

Artículo 42. *Medidas de conciliación de la vida laboral y familiar.*

a) La reducción de jornada por guarda legal, se ampliará hasta que el/la menor cumpla 12 años.

b) Adingabearen edo mendeko pertsonen legezko zaintzagarriko murrizketa hartzen duten langileek lanaldi murriztuak lanaldi osoetan edo lanaldi finkoetan metatzeko eskubidea izango dute. Metaketa asteka edo hilabeteka egin ahal izango da.

ESZEDENTZIAK

43. artikulua. Borondatezko eta nahitaezko eszedentziak.

1. Seme-alabak eta senideak zaintzeko.

Langileak eszedentzia hartu ahal izango du, seme-alaba bakoitza zaintzeko, bai berak izandako seme-alabak, bai adoptatu-takoak edo hartutakoak (betiko edo adoptatu aurretik) zaintzeko. Eszedentziako denboraldi hori hiru urtekoa izango da gehienez, eta haurra jaiotzen denetik aurrera hasiko da edo, hala behar denean, ebazpen judiziala edo administrazioko ebazpena ematen denetik aurrera.

Era berean, langileak gehienez hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango du odol-ahaidetasuneko edo bizikidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Idatz-zati honetan jasotako eszedentzia langileen banakako eskubidea da, hala gizonena nola emakumeena. Alabaina, enpresa bereko bi langilek edo gehiagok eszedentzia hori hartzeko eskubidea badute eta eszedentzia eragiten duena subjektu berbera bada, orduan, enpresaburuak eskubidea aldi berean erabiltzea mugatu ahal izango du, enpresako jardueran horretako arrazoirik bada eta arrazoiak behar bezala justifikatzen badira.

Bestalde, beste subjektu batek beste eszedentzia bat hartzeko eskubidea sortzen badu, eszedentziako denboraldi hori hasten denean, langileak lehendik zeukan eszedentzia bukatuko da. Artikulu honen arabera, langileak eszedentzian ematen duen denboraldia kontuan hartuko da antzintasuna zenbatzeko. Gainera, langileak eskubidea izango du lanbide-prestakuntzako ikastaroetara joateko, batez ere lanean berriz hasten denean; ikastaro horietara joateko deialdia enpresaburuak egingo dio. Bestalde, eszedentzia hartzen duen langileak eskubidea izango du lanpostua gorde dakion, baita, eszedentzia bukatzean, lehengo lanpostuan edo antzeko lanpostu batean automatikoki berriz lanean hasteko ere.

2. Gutxienez hiru urteko antzintasuna duten langileen zuzeneko eszedentziak.

Enpresak eszedentzia emango die enpresan gutxienez hiru urte daramatzaten langileei. Horrela, bada, langile horiei lanpostua gordeko die, eta, eszedentzia bukatzean, langileak lehengo lanpostuan edo antzeko lanpostu batean lanean hasi ahal izango dira berriz, besterik gabe. Baina, horretarako, langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eszedentzia ez da urte batetik beherakoa izango, ezta bost urtetik gorakoa ere.

b) Tankera honetako eszedentziak aldi berean hartzen dituzten langileak ez dira plantillako % 5 baino gehiago izango.

Langileak eszedentzia berriz hartu nahi badu, bi urte igaro beharko dute aurreko eszedentzia bukatu zenetik.

3. Bestelako eszedentziak.

Era berean, enpresak eszedentzia emango die enpresan gutxienez urtebeteko antzintasuna duten langileei. Hala, bada, langile horiei lanpostua gordeko die eta, eszedentzia bukatzean, langileak lehengo lanpostuan edo antzeko lanpostu batean lanean hasi ahal izango dira berriz, besterik gabe. Baina, horretarako, langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eszedentzia hartzeko arrazoiak honakoak izango dira: Lanbide-prestakuntzako edo birgaitzeko ikasketak egitea, gero, enpresan bertan sartu ahal izateko.

b) El personal que se acoja a la reducción por guarda legal por menor o personas dependientes, tendrá derecho a acumular las jornadas reducidas en jornadas completas o la jornada fija que posea. La acumulación podrá hacerse por semanas o meses.

EXCEDENCIAS

Artículo 43. Excedencias voluntarias y forzosas.

1. Por cuidado de hijas y familiares.

El personal tendrá derecho a un período de excedencia de duración no superior a tres años para atender al cuidado de cada hijo, tanto cuando lo sea por naturaleza, como por adopción, o en los supuestos de acogimiento, tanto permanente como pre adoptivo, a contar desde la fecha de nacimiento o, en su caso, de la resolución judicial o administrativa.

También tendrán derecho a un período de excedencia, de duración no superior a dos años, para atender al cuidado de un familiar que por razones de edad, accidente o enfermedad no pueda valerse por sí mismo, y no desempeñe actividad retribuida, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

La excedencia contemplada en el presente apartado constituye un derecho individual de las trabajadoras, hombres o mujeres. No obstante, si dos o más trabajadoras generasen este derecho por el mismo sujeto causante, el empresario podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones justificadas de funcionamiento de la empresa.

Cuando un nuevo sujeto causante diera derecho a un nuevo período de excedencia, el inicio de la misma dará fin al que, en su caso, se viniera disfrutando. El período en que la persona trabajadora permanezca en situación de excedencia conforme a lo establecido en este artículo será computable a efectos de antigüedad y tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional (deberá ser convocado por la empresa) especialmente con ocasión de su reincorporación. La excedencia será con reserva o reincorporación automática en su anterior o similar puesto de trabajo.

2. Excedencias para las trabajadoras con al menos 3 años de antigüedad.

La empresa concederá excedencia a las trabajadoras con al menos tres años de antigüedad en la empresa, con reserva o reincorporación automática en su anterior o similar puesto de trabajo, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Que dicha excedencia no sea inferior a 1 año ni superior a cinco años.

b) Que el número de trabajadoras que coincidan en este tipo de excedencias no sea superior al 5 % de la plantilla.

Este derecho sólo podrá ser ejercitado otra vez por la misma persona si han transcurrido dos años desde el final de la anterior excedencia.

3. Otras Excedencias.

De igual forma la empresa concederá excedencias con al menos un año de antigüedad en la empresa, con reserva o reincorporación automática en su anterior o similar puesto de trabajo, siempre que cumplan los requisitos siguientes:

a) Que los motivos de la misma sean la realización de estudios de formación profesional o reciclaje que con posterioridad puedan ser incorporados a la propia empresa.

b) Eszedentzia ez da urte batetik gorakoa izango, alderdiek bestelakorik adosten ez badute, behintzat.

c) Tankera honetako eszedentziak aldi berean hartzen dituzten langileak, gehienez, honako hauek izango dira: Langile bat, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan.

4. Gainerako eszedentziak.

Gainerako eszedentziei indarrean dauden legeek ezarritakoa aplikatuko zaie.

5. Eszedentziaren ondoren, enpresan berriz hastea.

Eszedentzia nahitaez hartzen dutenek eta kapitulu honetan aipatutako eszedentzia bereziak hartzen dituztenek, ezarritako epeetan lanera itzultzen ez badira, orduan, lehentasuna izango dute beren lanbide-kategoria sor daitezkeen lanpostu hutsak betetzeko.

Era berean, gizon-emakumeen benetako berdintasuna lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak dakarren gutzia bete beharko da.

VI. KAPITULUA

LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

44. artikulua. Laneko segurtasuna eta osasuna.

Enpresako Zuzendaritzak eta langileek beren gain hartuko dituzte, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, hitzarmen eta itun honek eta, gehigarri edo osagarri moduan, unean-unean indarrean dauden legeek ezarritako xedapen bereziek jasotzen dituzten eskubideak eta erantzukizunak.

Biurteko Plana egingo da eta Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak emango dio onspena. Planak denboraldi horretan jarduteko ildoak jasoko ditu.

Sistema honekin lortu nahi diren helburu nagusiak honako hauek dira:

– Laneko segurtasuna eta osasuna ekoizpen-sisteman txertatzea enpresako estamentu guztiek parte hartuta: Zuzendaritzek, agintariek, langileek eta ordezkari sindikalek.

– Laneko istripuak, laneko gaixotasunak eta kalte materialak gutxitzea, arriskuei hasieratik aurre eginez.

– Atal eta lanpostu berezietako lan-baldintzak hobetzea, arriskutsua dena kenduz eta, horren tokian, arriskurik ez duena edo arrisku gutxi duena jarritz.

– Langile guztiak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloak duen garrantziaz kontzientziaz eta sentsibilizatzea, eta alderdi horiek haien buruan sartzea.

Zuzendaritzak eta langileek beren gain hartuko dituzte laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legeek finkatutako eskubideak eta betebeharrak; eta, horietaz gain, honako gai jakin eta berezi hauetaz ere arduratuko dira:

* Zuzendaritza:

Segurtasuneko Plana eta planaren helburuak bultzatuko ditu eta horiek betetzea eskatuko du; orobat, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko politika orokorrak ezarriko ditu, baita horiek lortzeko egin beharreko inbertsioak ere.

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilera arruntetan eta ohiz kanpoetan buru izango da.

Beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu finkatutako helburuak lortzeko.

* Agintariak:

Beren lantegietan edo ataletan izaten diren istripuak gainbegiratu dituzte, eta laneko segurtasuna eta osasuna modu eraginkorrean eta etengabe garatzeko behar diren baldintzak sortuko dituzte.

b) Que la excedencia no sea superior a un año, salvo acuerdo entre las partes.

c) Que el número de personas trabajadoras que coincidan en este tipo de excedencias no sea más de uno en la empresa de menos de 50 trabajadoras.

4. Resto de Excedencias.

En cuanto al resto de las excedencias, será de aplicación lo establecido en la legislación en vigor.

5. Incorporación tras la excedencia.

Los excedentes forzosos y los que disfruten de las excedencias especiales señaladas en este Capítulo, que al cesar en tal situación no se reintegren a su puesto de trabajo en los plazos establecidos, tendrán preferencia para ocupar las vacantes que se produzcan en su categoría profesional.

